

1693/2005 FORU AGINDUA, ekainaren 29koa, zergen arloko zehapen batzuk barkatzeko eskumena eskuordetu duena (BAO Uztailaren 7koa)

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 195. artikuluko 3. idatz-zatian ezarri da zergen arloko zehapen irmoak grazia bidez bakarrik barkatu ahal izango direla eta barkapen hori zuhurtasunez emango duela Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak, berak zuzenean edo beste bat eskuordetuta.

Halaber, ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zehapen araudiko 24. artikuluko 1. idatz-zatian xedatu da Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari dagokiola zergen arloko zehapen irmoak grazia bidez barkatzeko eskumena eta eskumen hori eskuordetu ahal duela.

Zergen arloko zehapen batzuk barkatzeko eskumena eskuordetu duen urriaren 28ko 2679/2004 Foru Aginduan ezarri da Ogasuneko zuzendari nagusiari eskuordetu ahal diola kopuru jakin bat gainditzen ez duten zehapenak barkatzeko eskumena; foru agindu honek, gainera, 1997. urtean ezarritakoa eguneratu zuen.

Ogasuneko zuzendari nagusiak kopuru jakin batetik beherako zergen arloko zehapenak barkatzeko eskumena du; eta horri dagokionez, bada, une honetan ez da beharrezkotzat jotzen muga hori eguneratzea. Baina foru agindu hau nahitaez eman behar da, bertan ezartzen diren arau eta terminoen gaineko eta zergen arloko zehapenak barkatzeari buruzko aipamenak zergen arloko zehapen araudiaren araupeketa berrira egokitu ahal izateko; izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokor berria eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zehapen-araudia indarrean jartzearen ondorioz ezarri da araupeketa berri hori.

Azaldutako guztia dela bide, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Ogasun eta Finantza Saileko Ogasuneko zuzendari nagusiak 150.000 eurotik beherako isuna dakarten zergen arloko zehapen irmoak barkatu ahal ditu.

Zehapenaren kopurua aurreko idatz-zatian ezarritakotik gorakoa denean edo beste era batekoa denean, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak barkatu ahal ditu zergen arloko zehapen irmoak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arau-indargabeketa.

Foru agindu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratuko dira bertan esandakoaren aurkako maila bereko edo beheragoko mailako xedapen guztiak, eta batez ere zergen arloko zehapen batzuk barkatzeko eskumena eskuordetu duen urriaren 28ko 2679/2004 Foru Agindua.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Indarra hartzea.

Foru agindu hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2005eko ekainaren 29an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,

JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ.